

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Merkatua aztertu ondoren, zuzenduko garenen ezaugarriak hauek dira: 14 eta 45 urte bitarteko pertsonen zuzenduta dago, bereziki **gazteei** eta **gazte helduei**. Generoa ez da muga faktorea, **guztiek** zuzendutako tresna da. Diru-sarrera mailari dagokionez, edozein pertsona sar daiteke, festek eta ekitaldiek prezio askotariko aukerak eskaintzen baitituzte. Hezkuntza-maila ere ez da mugatzailea: ikasleak, langileak eta unibertsitarioak, besteak beste, erabiltzaile potentzial dira.

Erabiltzaileak **herrietan**, **eskualdeetan** eta **probintzietan** kokatzen dira, eta behar izanez gero, **autonomia erkidego mailara heda daiteke** aplikazioaren erabilera. Aplikazioak erabiltzailearen kokapenaren arabera informazioa eskaintzen du, beraz merkatu **nagusia** **tokikoa** edo **eskualdekoa** da. Etorkizuneko aukeren artean dago Espainia osoan zehar edo Europa mailan zabaltzea.

Erabiltzaileei, oro har, festak eta aisialdiko planak gustatzen zaizkie, bai eta musika ekitaldiak ere, hala nola kontzertuak eta jaialdiak. Pertsona hauek maiz bilatzen dituzte plan sozialak eta taldean egiteko jarduerak. **Bizimodu aktiboa** dute, lagunekin irteteko ohitura eta kultura zein jarduera sozialetan parte hartzeko interesa. Horrez gain, **sare sozialetan oso presente** egoten dira eta informazioa **modu azkar eta errazean** eskuratzea gustatzen zaie.

Erabiltzaileek aplikazioa erabiltzen dute **ekitaldiei buruzko informazioa** bilatzeko, **sarrerak modu seguruan** erosi edo saltzeko eta **aisialdiko planak antolatzeko**. Horrek guztiak informazio zentralizatua izateko beharra du oinarrian, baita erosketetan **fidagarritasuna** eta **segurtasuna** bermatzeko beharra ere. Gainera, ekitaldiak **garaiz** ezagutzea oso garrantzitsua da beraientzat, ezer ez galtzea baitute helburu. Motibazio nagusiak dira **prezio justuan** sarrerak eskuratzea eta **esperientzia sozial** zein **kultural aberasgarriak** bizitzea.

